

## OLBEren denboraldi berria



Gioachino Rossiniren *Il barbiere di Siviglia* obrarekin amaituko da OLBEren denboraldia, Euskalduna Jauregian.

OPERAREN LAGUNEN BILBOKO ELKARTEAK, beti bezala, gogor egin du lan aurten ere bere denboraldi berria, 64.a, aurrera ateratzeko. Insistitu egin behar da esfortzu handia egin dutela esanez, kon-tuan harturik gero eta laguntza txikiagoak jasotzen ari direla, krisia dela-eta. Izan ere, ohikoak ziren zazpi tituluetatik bostera pasa dira edizio honetan (baita aurrekoan ere); hori bai, betiko maila eta kategoria artistikoa mantenduz.

Begi bistan da egitarau gustagarri eta erakargarria prestatzen saiatu direla. Monografiko italiarra izango da edizio osoa, apustu apurtzaileei tokirik egin gabe. Alde batetik, pena da ausardia pittin bat ez izatea eta publikoarengana ez gerturatzea gutxitan programatzen diren beste ikuskizun mota batzuk, baina, bestalde, ulertu egin behar momentu honetan errentagarritasunaren bila aritzea.

Urriaren 24an izango dugu lehenengo obra, Verdiren *Don Carlo*, Schilleren *Dom Karlos*, *Infant von Spanien* dramari oinarritua. Opera historiko honetan, Daniella Barcellona mezzoa izango dugu, Eboli pertsonaian. Azaroan, hain ezaguna ez den opera bat disfrutatzeke aukera izango dugu: *Roberto Devereux*, Donizettirena. Opera horrek, Tudoren garaiko Roberto Devereux Essex-ko II. kondearen bizitzan oinarrituta, oso musika landua du, eta Ingalaterrako Elizabeth I.aren analisi psikologiko interesgarria eskaintzen du.

### Operaren Lagunen Bilboko Elkarte

**Egitaraua:** *Don Carlo*. *Roberto Devereux*.

*La sonnambula*. *Manon Lescaut*. *Il barbiere di Siviglia*. *Messa da Requiem*. **Lekua:** Bilboko Euskalduna Jauregia. **Data:** 2015eko urritik 2016ko maiatzera bitartean.

2016an titulu arinagoak (argumentuetan gutxie-nez) izango ditugu. Belliniren *La sonnambula* opera erdi-serioan Jessica Pratt soprano britainiarra izango dugu Aminaren rolean. Otsailean gure izarra den Ainhoa Artetak Pucciniren *Manon Lescaut* opera ezaguna egingo du, eta Rossinirekin amaituko da denboraldia, *Il barbiere di Siviglia* obrarekin.

Baina bost opera horiekin ez da amaitzen denboraldiak ematen duena. Verdiren *Messa da Requiem* zoragarria entzuteko parada izango dugu, Dolora Zajick mezzo amerikar handiarekin, beste bakarleri batzuekin batera.

Aurreko edizioetan bezala, OLBEk Opera Berri izeneko inizatiba mantentzen du, opera publiko berrietara hurbildu nahian, prezio merkeekin. *La Sonnambula*, urtarrilaren 30ean, eta *Il barbiere di Siviglia*, maiatzaren 15ean, prezio erdian eskainiko dira. ■

**Montserrat Auzmendi**